

EMOZIOAK LANTZEN MUSIKAREN BITARTEZ HAUR HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Cuesta Nieto, Ohiane.

ZUZENDARIA: Barrena de la Rua, Nerea

2019

Laburpena

Esku artean duzuen lan honetan musika eta emozioen garrantzia azpimarratzen da proposamen didaktiko batean gauzatuta Haur Hezkuntzara zuzenduta. Emozioak ezinbesteko elementuak dira gure pertzepzioa hautemateko. Jaiotzen garen momentutik sentsazio hauek aprobetxatzen eta erabiltzen saiatu behar gara, horrela, emozioak ulertzeko eta erabiltzen ikasteko.

Bestalde, Haur Hezkuntzan garrantzia duen beste tankera bat hezkuntza musikala da, emozioak eta adierazpenerako orokorrean ulertzeko aukera handiak eskaintzen baititu. Horregatik, hurrengo lanean bi aspektu hauen arteko fusioa egingo da. Modu honetan, ikasleak emozioak garatuko dituzte musika eta ilustrazio desberdinei esker.

Horretarako, proposamen didaktiko bat luzatuko da, *El emocionario* (2018) eta *Koloretako munstroa* (2012) liburuetan oinarrituta emozioei hurbilpena egiteko eta hauek identifikatzeko. Honekin, hezkuntza emozionala garatzen lagunduko zaie Haur Hezkuntzako haurrei. Ezinbestekoa da emozioak lantzea eta ezagutzea haurrak txikiak direnetik, bizitza osoan zehar baliagarriak baitirelako.

Gradu amaierako lan hau aurrera eramateko Haur Hezkuntzako 2 urteko haurrekin egin da. Proposamen hau praktika aldietan egondako denboran aurrera eraman da Erretereriako Bizarain Ikastolan.

Hitz- gakoak: Musika, adimen musikala, emozioak, adimen emozionala, Haur Hezkuntza.

Resumen

En este trabajo que tenéis entre manos se habla de la importancia de la música y las emociones en una propuesta didáctica. Las emociones son elementos fundamentales para la percepción de uno mismo. Desde el momento en el que nacemos, debemos aprender a aprovechar y utilizar estas sensaciones de una manera creativa, y para comprender las emociones y aprender a utilizarlas, necesitamos ayuda.

Otro aspecto de gran importancia en la etapa de la Educación Infantil es la educación musical, ya que ofrece grandes posibilidades creativas para conseguir un entendimiento emocional adecuado.

Por todo ello, el siguiente trabajo pretende hacer una fusión entre estos dos aspectos. De esta manera, los alumnos trabajarán las emociones a través de diferentes elementos como pueden ser la música y las ilustraciones. Para ello, se desarrollará una propuesta didáctica basada en los libros *El Emocionario* (2018) y *Koloretako munstroa* (2012), con el cual se pueda ayudar a desarrollar la dimensión emocional en los niños de Educación Infantil. Es imprescindible trabajar las emociones y su expresión desde que los niños son pequeños, pues es una manera de prepararles para vida real presente y futura.

Este trabajo de fin de grado se ha llevado a cabo en un aula de 2 años de Educación Infantil en el periodo de prácticas en el colegio Bizarain Ikastola de Errenteria.

Palabras clave: Música, inteligencia musical, emociones, inteligencia emocional, educación infantil.

Abstract

Emotions are fundamental elements for one's own perception. From the moment we are born, we have to learn to take advantage from those emotions and how to use them in a creative way. And for that purpose, we need help.

Another aspect of great importance during Infant Education is music education, since it offers huge creative possibilities in order to reach a proper emotional understanding.

Therefore, this work aims at merging these two aspects. In this way, students will develop emotions by means of different elements such as music and illustrations. For that purpose, an educational project based on the book *El Emocionario* (2018) and *Koloretako munstroa* (2012), which helps to develop emotional education in Infant Education children, is proposed. Working with emotions since students are children is essential, because it is a way to prepare them for present and future real life.

The final thesis will be developed with 2-years-old kindergarten children. The teaching proposal has been put into practised while intership at Bizarain Ikastola from Errenteria.

Key words: Emotional education, emotions, musical intelligence, music, children education.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	5
2. Justifikazioa.....	6
3. Marko teorikoa	8
3.1 Gaiaren garrantzia	8
3.2 Arloaren egoera	13
4. Helburuak.....	14
5. Metodoa.....	15
6. Emaidzak.....	16
6.1 Testuingurua.....	16
6.2 Proposamen didaktikoaren helburuak.....	17
6.3 Jardueren deskribapena eta analisisa.....	17
6.4 Nire proposamenaren hausnarketak	27
7. Ondorioak.....	32
8. Hobekuntza proposamenak.....	34
9. Bibliografia.....	36
10. Eranskinak.....	38

1. Sarrera

Lan honetan musika eta emozioen garrantzia azpimarratzen da. Bi alderdi hauek txikitatik landu behar direla uste dugunez, Haur Hezkuntzan praktikara eramateko proposamen didaktiko bat gauzatu dugu. Emozioak ezinbesteko elementuak dira gure pertzepzioa hautemateko eta jaiotzen garen momentutik sentazio hauek aprobetxatzen eta erabiltzen saiatu behar gara, horrela, emozioak ulertzeko eta erabiltzen ikasteko.

Bestalde, Haur Hezkuntzan garrantzia duen beste tankera bat hezkuntza musikala da, emozioak ulertzeko eta adierazteko aukera handiak eskaintzen baititu. Horregatik, hurrengo lanean bi aspektu hauen arteko fusioa egingo da. Modu honetan, ikasleak emozioak garatuko dituzte musika eta ilustrazio desberdinei esker.

Beraz, lanarekin hasteko, proposamen hau egitearen arrazoia eta justifikazioa eman dugu. Musika eta emozioak Haur Hezkuntzan lantzea garrantzitsua da, baina praktika aldietan lantzen ez direla konturatua, lan hau egitea erabaki genuen.

Jarraian, marko teoriko sakon bat aurki daiteke, bertan, autore eta psikologo ezberdinen ideiak eta pentsamenduak plazaratuak. Zergatik da garrantzitsua Haur Hezkuntzan musika lantzea? Eta emozioak? Zergatik biak batera?

Segidan, lan honekin genuen helburu orokorra; emozioak eta musika batzen zituen proposamen didaktiko bat egitea eta, bigarren mailako beste helburu batzuk irakur daitezke. Eta, helburu horiek betetzeko, egindako bide luzea eta informazio bilaketa sakona metodoa atalean aurki daiteke.

Gero, lan honen emaitzak agertzen dira. Puntu honetan, emozioak eta musika Haur Hezkuntzan lantzeko sortu dugun proposamen didaktikoa eta hauek aurrera eramateko erabilitako materialak ikus daiteke. Jarduera bakoitzaren deskribapena, helburuak, edukiak eta gaitasun orokorrak taula ezberdinetan aurkeztuak. Jarraian, jarduera hauek eskolan hurrekin aurrera eramatean lortu ditugun emaitzak eta egin ditugun moldaketak aurki daitezke.

Honen ostean, lan hau burutu ondoren lortu ditugun ondorioak aurkitzen dira. Bertan, lan honekin ikasi, ikusi eta aztertu duguna aurkituz. Eta bukatzeko, lan hau berriro egingo bagenu egingo genituen hobekuntza proposamenak topa ditzakegu. Azkenik, lan honen bibliografia eta eranskinak daude.

Eskerrak eman nahi dizkiot Bizarain Ikastolako tutore/irakasleei bertan eskainitako laguntzarengatik eta Nerea Barrenari, lan honen zuzendaria denari. Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiot nire familiari niregan jarritako konfiantzarengatik eta bereziki zuri, nire bidea argitzen duen izarrari.

2. Justifikazioa

Gradu amaierako lan honek emozioak eta musikak Haur Hezkuntzan duten garrantzia batzen du. Alde batetik, hezkuntza emozionalaren garrantzia azpimarratzen da Haur Hezkuntzako garaian. Bestalde, musikak gizakiaren garapenean duen garrantzia azpimarratzen da eta emozioen adierazpena garatzeko zein garrantzia handia duen Haur Hezkuntzan baita ere.

Gai hau garatzeko Gardnerren (1993) eta Golemanen (1999) ideietan ipini dugu arreta handia, besteak beste. Hauek hezkuntza emozionala beharrezko eta ezinbesteko konpetentzia moduan ulertzen dute, konpetentzia hauei esker gure egunerokoan beharrezkoak diren beste konpetentzia batzuk garatzen direlako, alegia. Horregatik, hezkuntza emozionala behar- beharrezkoa da haur zein Haur Hezkuntzako maisu- maistretan, izan ere, hauek izango dira hurrei hezkuntza emozionala ulertzen lagunduko dietenak, besteak beste. Gurasoek ere badute garrantzi handia prozesu honetan, nahiz eta Gardnerrek eta Golemanek hori ez aipatu.

Hezkuntza emozionalaz gain, aniztun adimenak ere lantzen dira, adimen musikalean gehien sakontzen. Lan honetan musikak Haur Hezkuntzan duen garrantzia goraiatu nahi da. Jakinda musikak gizakiaren bizitzan beharrezkoa dela, eskola askotan oraindik ez baitzaio duen garrantzia ematen. Aurrerago azalduko dugunez, Pascualek, Montessorik eta Gardnerrek adimen musikala gizakiaren garapen prozesuko zati bat dela diotenez, hauen ideiak landu ditugu, besteak beste.

Behin hezkuntza emozionalaren eta musikaren garrantzia ulertuta, hauen arteko fusioa egingo da, horrela, adimen musikalak haurren emozioetan duen eragina azpimarratzeko. Horretarako, proposamen didaktiko bat egingo da eta honetan, Llenasen eta Núñez eta Valcárcelen liburuetan oinarrituko gara, testu eta ilustrazio sinpleei esker, haurrak emozioak eta musika hobeto ulertzeko.

Gaia aukeratzearen arrazoiei begira, aipatu beharra dago une askotan nik sentitzen dudana zergatik sentitzen dudan ez dakidala konturatu naiz eta honek interes handia sustatu zidan. Hortaz, hezkuntza emozionalaren inguruko informazioa bilatzen

jarri nintzen nire burua hobeto ulertzeko asmoz. Nire emozioak lantzea eta ulertzea oso laguntzazkoa izaten ari da niretzat, baina hori, txikitatik landu beharko zela pentsatzen dut.

Nire Haur Hezkuntzako ikasketetan 3 praktikum egin ditut hiru eskola ezberdinetan eta eskola horietan, ez zeuden emozioak lantzeko baliabiderik. Bizarain Ikastolan, zehazki, praktiketan egon naizen 3 hilabetetan gauza askotaz ohartu naiz; horietatik, hezkuntza emozionala oso gutxi lantzen zela. Ikasturte osoko plangintza begiratuta, emozioak lantzeko ez zeudela inongo jarduera ezta materialik ikusi nuen. Hortaz, nire Praktikumean Haur Hezkuntzako hurrekin emozioak lantzea aproposa eta onuragarria izango zela pentsatu nuen eta praktiketako irakaslearekin hitz egin eta baiezkoa jaso ondoren, haiekin emozioak lantzen hasi nintzen.

Bestalde, nire praktikumeko proposamen didaktikoa egin ari nintzela, 2 urteko hurrek musika askotan eskatzen zutela ohartu nintzen, jolasten zeuden momentuetan, hamaiketako jaten zuten bitartean, etab. eta musika haiei, niri bezain beste gustatzen zitzaizela ikusita, nire Gradu Amaierako Lanean musika batzen zuen proposamen didaktiko bat egitea erabaki nuen.

Niri musika betidanik interesatu zait, hain zuzen ere, gaur egun musikak garrantzia handia du nire bizitzan eta nire egunerokotasunean. Orain dela 10 urte abesbatza batean abesten hasi nintzen eta konturatu naiz, une askotan, musikak nire ezkutuko emozioak azaleratzen laguntzen didan modu bakarretako bat dela. Gainera, abesbatza baten parte izateak talde lana sustatzea eragiten du, hau da, pertsona bakoitzak bere alea jartzen du eta denon kolaborazioari esker musika egitea posiblea da. Musikarekin makina bat sentimendu eta emozio sentitu daitezke, horregatik, eragin handia du pertsonen pertsonalitatea eraikitzeko orduan. Gainera, niretzat hain garrantzitsua den arlo hau Haur Hezkuntzan ia lantzen ez dela konturatuta, proposamen didaktikoari gehitzea pentsatu nuen.

Orduan, hezkuntza emozionala eta hezkuntza musikalaren arteko bat- egitea erabaki nuen. Niretzat interesgarriak, politak eta garrantzitsuak diren bi arlo hauek batuz, hurrek musikarekin haien burua identifikatzeko, emozioak bideratzeko eta lehenengo hartu ematea egiteko, lan hau egitea pentsatu nuen. Gradu Amaierako Lana eta Praktiketako proposamen didaktikoak aldi berean eginda ere, lan hau egiteko, informazio bilketa sakona egin behar izan dut, horrela, pisuzko oinarri teoriko egiteko eta alderdi musikala eta emozionala ahalik eta hoberen garatzeko.

3. Marko teorikoa

3.1 Gaiaren garrantzia

Musika, ikaskuntza- irakaskuntza garaian egon daitezkeen helburu, eduki eta jarduera guztiak garatzeko oinarria izan daiteke. Haur hezkuntzan ikasten diren edukiak modu diziplinarteko eta modu globalizatzaile batean garatzen dira haur denetan (Pascual, 2006).

Eskola Berria terminoak, bereizi egiten du hezkuntza garaikidearen mugimendu handiena, XIX. mendearen bukaeran sortua, eta uniformetasunetik ihesi, eskola-eredu tradizionalari aurre egiteko saiakera ezberdinak barne hartu zituen. Eskola Berriaren aitzindari nagusi eta funtsezkoen artean J. J. Rousseau aipatu beharko genuke. Nahiz eta mugimendu honek, herrialde ezberdinetan izen ezberdinak izan, Espainiari dagokionez, Eskola Aktiboaren mugimendua deitu zitzaion; izena Adolphe Ferrière proposatu zuelarik. (Camino eta Murua, 2014)

Hezkuntza berriak hainbat printzipio zituen, hala nola, hezkuntza-prozesuren helburu nagusia umea prestatzea, umearen banakotasuna errespetatzea, umearen interesak kontuan hartzea, adin bakoitzak bere izaera duenez hauen erantzukizun indibidual eta sozialen sentimendua indartzea, konpetentzia eta lehiakortasuna desagertzea, bi sexuei tratu bera ematea eta hiritarra prestatzeaz gain, gizatasuna lantzea. Baina, zazpi printzipio horiez gain, Nazioarteko Hezkuntza Bulegoak ezarritako beste hainbat printzipio azpimarratzen dira, horien artean, hezkuntza artistikoa eta morala lantzea. Honek, musika kolektiboa bultzatu eta musika sormenaren eta hezkuntza ludikoaren alde egin zuten lehenengo metodoak izan ziren (Camino eta Murua, 2014).

Musikak entzumena, adierazpena eta sormena garatzeko balio du. Haur Hezkuntzan musikaren bizipena eta erabilera oso garrantzitsua dela azpimarratu behar da. Adimen musikalaren bitartez, forma musikalak gozatzeko, diskriminatzeke, transformatzeko eta adierazteko gaitasuna lortzen da, erritmoa, tonua eta tinbrea sentitzen ikasten den momentu berean. Bernalek (2000) Granadan egindako ikerkuntza batean ikusi eta baieztatu zuen bere hipotesia; irakasleek musika irakasteko metodologia eta adimen kontzeptual falta zuten. Horregatik, 0 eta 6 urte arteko haurrek ia ez dute hezkuntza musikala ikasten.

Baina, soinua eta musika gizakia jaio aurretik aurkezten dira, hortaz, hezkuntza musikala adin goiztiarretik hasi behar da. Pedagogo eta psikologo askok hezkuntza

musikala ahal den goizen hasiera gomendatzen dute, hala nola, Froebel, Decroly eta María Montessori. Gaur egun, fetuak soinuei erantzuna ematen dietela eta horietatik ikasten dutela badakigu. Gainera, zentzumen organoa umetokiaren barnean garatzen den lehenengo organoa da eta jaio baino 3/4 hilabete lehenago kanpoko soinuak entzuteko gai da. Horregatik onuragarria da jaio aurretik ere amak musika entzutea eta abestea (Pascual, 2006). Bernal eta Calvok (2004) aipatu bezala hurrek musika entzuten gozatzea, ohitzea eta soinuaren ezaugarria ezagutzea piztu behar da.

Era berean, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan Pascualek (2006) Campbellen (2000) hitzak aipatu zituen:

"las cualidades rítmicas de las canciones de cuna e infantiles y de los juegos sencillos inyectan el sentido del tiempo en los músculos y mente del bebé, un ritmo subyacente que lleva a mayor coordinación, equilibrio, percepción corporal, fuerza, agilidad física y, por último, el sentido de la previsión y la capacidad de planear de antemano." [...] "hacerle escuchar música sin letra favorecerá su musicalidad en el desarrollo, mientras que cantarle canciones sienta los cimientos de la capacidad lingüística, y más adelante, la de leer, hablar y expresarse." (52-53. or)

Gaitasun hauek musika sortzen eta entzuten hobetzen dira, hain zuzen ere, musika haurren emozioak ateratzeko gai delako eta hurrek helduek bezain trebe direlako musikaren zentzu emozionala ulertzen. Gainera, Haur Hezkuntzaren bigarren zikloan bakarkako jolasa, jolas paraleloa bilakatzen da, azkenean besteekin jolasten bukatzen duten arte, hau da, musikak gaitasun soziala erakusten du; txandak errespetatzen, entzuten eta komunikatzen. Bestalde, sormena eta originaltasuna garatzen laguntzen du eta bakoitzaren pertsonalitatea sormen- musikari esker eratzen da, horrela irudimena lantzen den bitartean. Hortaz, hezkuntza musika Haur Hezkuntzan lantzea psikomotrizitatea, memoria, adierazpena, entzumena, gustua eta iritzi kritikoa garatzea eragiten du, pertsona sozialak, lagunkoi eta hiritarrak lortzen diren bitartean (Pascual, 2006).

Hainbat filosofo greko hezkuntza musikaren garrantzia azpimarratu zuten. Sargetek (2000) hauen ekarpen garrantzitsuak azpimarratu zituen:

- Pitagoras izan zen lehenengo filosofoa musika eta matematikaren arteko harremana planteatzen eta musika ikuspuntu pedagogiko batetik ikusten.
- Platonek musikak arima moldatu zezakeela zioen, hortaz, hezkuntzan musikaren egokitasuna defendatu zuen plazera eta zientziaren iturri bezala.

- Aristotelesek, Platonen pausuak jarraitu zituen eta haurrak musika abesten eta instrumentuak jotzen ikasi behar zutela zioen. Parte-hartze pertsonala interpretazioan garrantzia handia du izaeraren sorkuntzan.

Gardnerrek (1993) 7 adimen azpimarratu zituen: adimen linguistikoa, adimen logiko matematikoa, adimen musikala, adimen espaziala, adimen zinetesiko korporala eta adimen pertsonala. Pertsona guztiak 7 adimen hauek edukitzen ditugu, nahiz eta batzuk gehiago nabarmentzen diren. Normalean, adimen gehienak behar dira egunerokotasunari aurre egiteko.

Adimen guzti horietatik, adimen musikala adin goiztiarretik ikus daiteke, hau baita lehenbizi agertzen den adimenetako bat. Yehudi Menuhim musikariari buruz hitz egiten du bere liburuan, honen adimen musikala biolinarekin, bera biolina edo edozein instrumentu jotzen hasi aurretik agertu baitzen, inongo formakuntzarik jaso gabe. Honek esan nahi du biologikoki prest zegoela hori egiteko (Gardner, 1993).

Dakigun bezala, haurrek zezeltzen dutenean, askotan, patroi musikalak sortzen ari dira eta hauek errepikatuz, azkenik adimen linguistikoa lortzen dute. Adimen musikal hori familiarretik etorri daiteke, hain zuzen ere, adimen musikala bizitza osoan zehar garatzen doan adimena delako. Jaio aurretik haurrak kontaktuan daude kanpo soinuekin, gurasoen ahotsarekin, melodia ezberdinekin, etab. Horregatik, haurrek jaio aurretik ere, adimen musikala sortzen joan daitezke. Gardnerrek Mechthlik Papousek eta Panuk Papouse aipatzen ditu eta baieztatzen du azken ikerkuntzetan haurrek, bi hilabetetik aurrera gurasoen tonu, bolumen eta abestien inguru melodikoa berdindu dezaketela. Era berean, bi urteko haurrek borondatezko soinu punteaketa, asmatutako musika eta soinudun jarduerak egiteko gai dira. 3 urtetik aurrera, berriz, bere inguruko soinuak identifikatzeko eta sumatzeko gai dira (Gardner, 1993).

Akoschky, Alsina, Díaz eta Giráldez (2008) liburuan aipatu zuten:

"Toda educación musical básica, no se debe relacionar con una utilidad de aprendizaje como, por ejemplo, si algún día nuestros hijos o hijas querrán dedicarse a la música, sino con algo más trascendental: un desarrollo integral, una inteligencia más que estimular y que ayudara a las demás inteligencias."
(Gardner, 1995, 29.or)

Bernal eta Calvok (2004) aipatu zuten, eduki musikalak, adierazpen artistikoa eta sormenenarekin harremanetan jarriz, adierazpen musikala lortzen dela. Haurrak Haur Hezkuntza bukatzen dutenean, ondo ahoskatu behar dute, ikasitako abestiak

memorizatu, gorputzaren ezaugarri soinuak ezagutu eta sentrazioak eta emozioak abestien bidez adierazteko gai izan behar dira.

Ez hori bakarrik, musikak estimulazio sensoriala eta emozionala lortzeko modu bat da. Akoschky et al. (2008) aipatu bezala musikarekin lotura duen edozein gertakari ezinbestekoak dira garapen musikala lortzeko. Haurrek ikaskuntza honen bidez, haien pentsamendua eta emozioak garatzeko gai izango dira.

Ildo honetik, aipatu, arestian azaldu diren 7 adimenez aparte, Daniel Golemanek (1999) beste adimen bat proposatu zuela; adimen emozionala. Golemanek adimen emozionala adimen intrapertsonala eta interpertsonalaren arteko fusioa bezala ulertzen du. Adimen hau, askotan, ez da behar bezala lantzen eskoletan, nahiz eta gaur egun, geroz eta gehiago lantzen ari den.

Dena den, garapen emozionalaren hitza ez zuen Golemanek sortu, baizik eta Mayer eta Saloveyk (1997), emozioak egokitzapenean eta adimenean duten garrantzia azpimarratzeko. Hauen hezkuntza emozionala emozioak arrazoitzeko trebetasuna eta gaitasuna izatean oinarritzen da.

Jakin badakigu emozioak, jaiotzen garenetik hiltzen garen arte, gure bizitzan bertan daudela eta hauek, garrantzia handia dutela pertsonalitateak eraikitzeo momentuan.

"Educar significa contemplar el desarrollo integral de las personas, desarrollar las capacidades tanto cognitivas, físicas, lingüísticas, morales, como afectivas y emocionales. Así pues, las emociones también deben ser educadas y la escuela forma parte de ello." (Lopez Cassak, 2005, 155.or).

Melián eta Rodriguez del Vallek (2016) bere lanean Mayer eta Salovey (1990) hezkuntza emozionalak lau osagarri zituela aipatu zuten; pertzepzioa, asimilazioa, ulermena eta erregulazioa eta hauek hezkuntza emozionala horrela definitu zuten: *"la habilidad para monitorear los sentimientos y las emociones propias y las de los demás, para discriminar entre ellas y regularlas, utilizando esta información para solucionar los problemas"* (7.or).

Era berean, pertzepzioari dagokionez, hau garatua duen pertsona batek norberaren zein besteen sentimenduak antzemateko gaitasuna du. Honek aurpegiko adierazpenean, gorputzeko mugimenduetan eta ahots tonuan arreta handia jartzen du eta arestian esan dugun bezala, 4 osagarrien artean hau lehen azaltzen dena da (Fernández eta Pacheco, 2005).

Hezkuntza emozionalak adimen interpersonalean jartzen du arreta berezia, hain zuzen ere, emozionalki adimentsuak diren pertsonen trebetasun handia izango dutelako haien emozioak hautematen, asimilatzen eta gidatzen. Ez hori bakarrik, beste pertsonen emozioak hautematen, ulertzen eta gidatzen ere trebetasun handia izango dute. Hortaz, adimen interpersonala ona izatea, bizitzako arlo sozialean lagundu eta onurak ekartzen ditu. (Extremera y Fernández, 2007).

Gardnerrek (1993) ere adimen interpersonala eta intrapersonala emozioekin erlazionatu zituen, hauei hurrengo definizioa emanez.

"La Inteligencia Interpersonal se construye a partir de una capacidad nuclear para sentir distinciones entre los demás: en particular, contrastes en sus estados de ánimo, temperamentos, motivaciones e intenciones. En formas más avanzadas, esta inteligencia permite a un adulto hábil leer las intenciones y deseos de los demás, aunque se hayan ocultado." [...] " La inteligencia Intrapersonal es el conocimiento de los aspectos internos de una persona: el acceso a la propia vida emocional, a la propia gama de sentimientos, la capacidad de efectuar discriminaciones entre las emociones y finalmente ponerles un nombre y recurrir a ellas como un medio de interpretar y orientar la propia conducta" (47-48. or).

Beraz, Gardnerrek garapen musikala garapen emozionalean, espiritualean eta kulturean eragin handia duela dio. Are gehiago, musikak pentsatzeko eta lan egiteko beharrezkoa den egitura mentala lortzen laguntzen du (Pascual, 2006). Hortaz, lan honetan hezkuntza musikala eta garapen emozionala batu eta horren inguruan lan egingo da.

Horretarako, Anna Llenasen *Koloretako munstroa* (2012) eta Cristina Núñez eta Rafael R. Valcárcelen *El emocionario* (2018) liburuetan oinarrituko gara. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan haurrak koloreak ikasten dituzte eta modu honetan, koloreak emozioekin erlazionatzen dituzte. Horretarako, Anna Llenasek ipuin hau idatzi zuen, Haur Hezkuntzan dauden haur orok haien sentimenduak identifikatzen ikasteko.

Bestalde, Núñez eta Valcárcelen liburua erabiliko da. Liburu hau garapen emozionala etxean zein eskolan lantzeko sortua izan zen. Baliabide hau emozioei esanahia emateko eta haurren curiositatea sustatzeko tresna paregabea da. Gainera, hizkuntza sinple eta erraz batean idatzia dagoenez, haurrek eztabaidatzeko eta ideia eta bizipen ezberdinak aurkezteko aukera izango dute. Honekin, musika ezberdinak entzunez haurrak emozio ezberdinak sentitzeko eta poliki- poliki emozio horiei izena emateko gai izango dira. Ezinbestekoa da sentimendu eta emozio hizkuntza Haur Hezkuntzako garaitik erakustea.

3. 2 Arloaren egoera

Aurreko puntuan ikusi den moduan gai hauei buruz obra, ikerketa zein artikulu ugari aurki daitezke. Musika jorratzen duen autore asko daude, horien artean, garrantzia handia duen Pilar Pascual (2006) bere *Didáctica de la música* liburuarekin, Akoschky, Masmitjà, Gómez eta Hayes (2008) *La música en la escuela infantil (0-6)* liburuarekin, Gardner (1993) *Inteligencias múltiples. La teoría en la práctica liburuarekin*, bertan, adimen musikalaz hitz egiten duelarik, etab.

Emozioei dagokienez ere, informazio asko topa daiteke, hala nola, *El papel de la inteligencia emocional en el alumnado: evidencias empíricas* Extremera eta Fernándezena (2007), Damassiori (2011) egindako elkarrizketa bat *El origen de los sentimientos* izenekoa, Bisquerraren (2011) *Educación Emocional. Propuesta para educadores y familias*, Golemanen (1999) *La práctica de la inteligencia emocional*, López Cassák idatzitako *La educación emocional en la educación infantil*, Anna Llenasen (2012) Koloretako munstroa liburua eta Olga De Diosen Munstro arrosa liburua, besteak beste.

Bestalde, aurreko bi arloak batera jorratzen dituen liburuak eta artikuluak ez daude hainbeste, baina, badaude web orri interesgarri batzuk. *El aula de Elena* Haur Hezkuntzako irakasle batek sortutako blog bat da, bertan musika eta emozioak lantzeko egindako jarduerak aurki daitezke, *El emocionario* (2018) liburuan oinarritua.

El emocionario (2018) liburua emozioak lantzeko proiektu bikaina da. Liburu hau hainbat hizkuntza ezberdinetan aurki daiteke eta formatu ezberdinetan aurkeztua dago, hala nola, azal gogorarekin, azal bigunarekin, liburu txikian, liburu handian, etab. Gainera, liburu hau hurrei irakurtzeko antolaketa ona du, izan ere, testuak alde batean daude eta ilustrazioak bestean. Bestalde, liburu hau web-orrialdea du, bertan, jarduera ezberdinak aurkitzen direlarik. Nahiz eta proposatutako jarduerak Haur Hezkuntzako 2. zikorako izan edozein adinetara moldatu daitezke.

4. Helburuak

Lan honen helburu nagusia Haur Hezkuntzan emozioak eta musika garatzeko proposamen didaktiko bat egitea da, konkretuki 2 urteko gelarako modu egoki, ulergarri, dibertigarri eta gertuan lantzeko.

Beste bigarren mailako helburu batzuk:

- Musikak Haur Hezkuntzan duen garrantzia indartzea. Adimen musikala garatzea, bizitzan garrantzitsuak diren beste adimen batzuk garatzeko onuragarria baita.
- Emozioak gizakiaren garapenean duen garrantzia azpimarratzea. Emozionalki adimentsuak diren pertsonak adimen intrapertsonala eta gehien bat interpersonala garatuago dituztelako.
- Ikasleei haien emozioak identifikatzen, ezagutzen eta azaleratzen lagundu musika eta ilustrazioen bidez.

5. Metodoa

Lan hau burutzeko, lehenbailehen gaiari buruzko informazioa bilatzen hasi ginen. Artikulu, dokumentu eta liburu asko irakurri genituen; Howard Gardner (1993) *Inteligencias multiples*, *Didáctica de la Música* (2006), *La música en la escuela infantil (0-6)* (2008), etab. Ondoren, lan honen testuingurua egiten hasi ginen.

Testuinguruarekin batera, programazio didaktikoa planteatzen hasi ginen, hau da, emozioak eta musika batzen zituzten jarduerak 2 urteko haurrentzat prestatzen. Honekin buru hauste handiak izan genituen, hasieran pentsatu genituen jarduera batzuk kendu genituen beste berri batzuk sartzeko. Dena ahal den hobekien ateratzea nahi baikenuen. Horretarako, proposamen honen metodologia aktiboa eta parte-hartzailea izan da, ikaskuntza esanguratsua eta ikuspegi orohartzailea lortu nahi genuelako.

Ildo beretik, praktiketako irakasleari nire programazioa erakutsi nion eta berak, hainbat aholku eman zizkidan, horien artean, jarduerak mantsoago eta pausoz pauso ematea. Beraz, jardueren planifikazioa eta denboralizazioa berregin behar izan genuen, horrela, hurrek hobeto ulertuko zuten dena eta poliki- poliki guk lortu nahi genituen helburuak lortuko zituzten. Eta horrela egin genuen, jarduera batzuk zegokion denbora baino gehiago luzatu genituen, haien erritmora eta beharretara moldatuz.

Jarduerak egiteko material ezberdinak prestatu genituen: txontxongiloak, ipuinak, eta fitxak. Gainera, garrantzia handia izan duten musika ezberdinak aukeratu genituen, hauekin, hurrengan emozio ezberdinak sorrarazteko, emozio ezberdinak hobeto ulertzen laguntzeko eta melodia, erritmoa, tinbrea eta armonia ezberdinak erreparatzeko.

Jarraian, jarduerak hurrekin egin ondoren, emaitzak egunero kanpo koaderno batean jaso, informazioa aztertu eta ondorio batzuk atera genituen. Hau eginda, berriz egingo bagenu zer aldatuko genuke edo zer hobetuko genuke pentsatu eta idatzi genuen, egunen batean berriz egiteko asmoz.

Azkenik, lan hau egiteko erabili genituen liburu zein artikulu denak bibliografia txukun batean batu genituen eta jarraian, eranskinak ipini genituen.

6. Emaizak

6.1 Testuingurua

Bizarain Ikastola, eskola publiko bat da Erreterian kokatuta, Beraun auzoan zehazki (Gipuzkoa). Honako eskola hau euskara eta euskal kulturarekin izugarriko konpromisoa du. Bizarain Ikastola, aurretik sortuak zeuden beste bi eskoletako fusioa egitean sortu zen, baina guztira, 25 urte darama hezkuntza bere osotasunean eskaintzen.

Beraun auzoan etnia ezberdineko pertsonak nabarmentzen dira, hala nola, etnia ijitoa. Ikastolan dauden kultura ezberdinei esker, kultur- aniztasuna oso garatuta dago. Horregatik, euskara bultzatzea oso garrantzitsua da. Familia gehieneko egoera soziokulturala maila erdiko da, familia umilak baitira. Horrela, aniztasuna eta desberdintasun orok aintzat hartuta, ikasleen gaitasun eta trebetasunak garatzen saiatzen dira, bakoitzak bere egoera soziokulturala, pertsonala, ikaste prozesua eta erritmoa izango duela jakinik.

Bizarain Ikastola bi eraikinetan banatuta dago, alde batetik Haur Hezkuntzako ikasleentzat prestatuta dagoena eta bestetik, Lehen Hezkuntzako ikasleentzat. Bi eraikin hauek primerako instalazioak dituzte, baina Haur Hezkuntzako eraikinari dagokionez, klasea emateko 11 gela aurki daitezke, gela bakoitza erabiliko dituzten haurren adinari egokituak. Bestalde, informatika gela, jolastoki estali eta ez estaliak, futbol eta saskibaloiko zelaiak, kiroldegia, ingeleseko eta musikako gela, psikomotrizitate gela, liburutegia, jantokia, etab. aurki daitezke.

2 urteko haurrentzat 2 gela egokitu daude, komun txikiak ditu, txorrotak bere neurriko kokatuak, fardelak aldatzeko tokia, etab. Nire gela 16 haurrek osatzen dute, 8 mutil eta 8 neska. Hauetatik oraindik diagnostikatu gabe baina premia bereziak dituen haur bat aurkitzen da. Gelan giro ona eta lagunartekoa dago.

Gelari dagokionez, oso zabala eta argitsua da, hiru leiho handi baititu. Bestalde, gela hainbat txokotan banatuta dago: irakurketa txokoa, etxe txokoa, jolas eta lanen txokoa, asanblada txokoa, informatika txokoa eta psikomotrizitate txokoa. Txoko bakoitzean aurki daitezkeen materialen argazkiak daude, bakoitza kokatuta dagoen lekuan. Modu honetan, haurrek materiala jasotzeko orduan, zein tokitan utzi behar duten jakingo dute.

Aipatzekoa da ikastolan Montessoriren metodologia erabiltzen saiatzen direla, hortaz, material eta jostailu denak haien eskura dituzte. Horrela, haiek nahi duten momentuan manipula eta erabil dezakete.

Irakaslearen lana txoko guzti hauetan haurrak koordinatzea da, denak txoko guzti horiei erabilera emateko. Horretarako, irakasleak material ezberdinak sartzen ditu, haurrek asper eta neka ez daitezten. Beti haien kuriositatea eta interesa sustatzen saiatzen da, haien garapena bultzatuz.

6.2 Proposamen didaktikoaren helburuak

Jarraian emozioak eta musika lantzeko egindako programazio didaktikoa aurki daiteke. 6 saioko programazioa da, baina, dena, haurren erritmora moldatu denez, saio gehiago behar izan ditugu gure helburuak betetzeko.

237/2015 dekretua. Haur Hezkuntzako curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoan oinarrituta, proposamen didaktiko honen helburu nagusia hurrengo izango da:

2. nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremuan aurki dezakegun norberak zer emozio eta sentimendu dituen ezagutzea eta horiez jabetzea, horiek guztiak komunikazio-asmoz adierazteko eta, arian-arian, gainerako pertsonenak aintzat hartzeko.

lido beretik, badaude beste bigarren mailako beste helburu batzuk:

- Ikasleei haien emozioak identifikatzen, ezagutzen eta azalerraten lagundu musika eta ilustrazioen bidez.
- Norberaren zein besteen emozioak bereizten eta adierazten laguntzea, horretarako musika emozio ezberdinekin lotzea eta hori marrazki zein gorputzaren bidez adieraztea.
- Emozio bakoitza kolore batekin erlazionatzea.

6.3 Jardueren deskribapena eta analisisa

1. **Koloretako munstroaren ipuina:** Haurrak lurrean eserita egongo dira eta gu, haiekin batera lurrean eseriko gara. Behin isiltasuna lortuta *Koloretako munstroaren* ipuina kontatuko zaie 5 munstroen txontxongiloak aurkezten zaizkien bitartean. Jarraian, txontxongiloak gelako pareta batean ipiniko ditugu,

haiek manipula dezaten. (Eranskinak 1. Saioa) Aurrerago munstro horiek margotu beharko dituzte dagokien kolorearekin, hortaz, margotu aurretik, munstroaren emozioa eta kolorea ondo ezagutu beharko dituzte.

- Pozik: horia
- Haserre: gorria
- Lasai: berdea
- Negarrez: urdina
- Beldurtuta: beltza

2. **Nola nago?:** Hasteko, *Nola nago?* (2018) liburuxka erakutsiko zaie. Bertan, emozio ezberdinen irudiak aurki daitezke (pozik, triste, beldur, lasai eta haserre). Liburuxka hau, irakurketa txokoan utziko zaie haiek nahi dutenean ikus dezaten. Liburuxka ikusi eta emozioei buruz hitz egin ondoren, txontxogiloetaz baliatuz, bakoitzari 5 munstro banatuko zaizkie eta hauek, sentitzen diren bezala margotu beharko dituzte, hau da, pozik dagoena, munstro horia aukeratu beharko du eta hori margotu, triste dagoena urdina.. (Eranskinak 2. Saioa) Behin munstroak margotu dituztela, haien argazkiaren ondoan ipiniko dituzte. Modu honetan, haien emozioa eta besteena bisualki ikus dezaten.

3. **Sentimenduekin jolasten:** Musika ezberdinak ipiniko dira eta honi lotuta, hainbat ilustrazio erakutsiko zaizkie. Musika bakoitzak emozio ezberdin batekin lotzea du helburu. Haiek musika entzun ondoren sentitu dutena adierazi ahalko dute hitz batekin nahi izan ezker. Irakasleak nola sentitu diren galdetuko die eta haiek pozik, triste, beldur, etab. erantzungo dute. (Eranskinak 3. Saioa)

4. **Instrumentuak jotzen:** Gure helburu nagusia guk instrumentu ezberdinak joz haurrak emozio ezberdinekin erlazioantzea izango da. Jarraian, instrumentuak haurren eskutara utziko dira, horrela, haiek instrumentuekin esperimintatzeko. Instrumentu bakoitza emozio batekin joateko pentsatua dago:

Lasaitasuna: Arroz botila

Haserrealdia: Kutxa txinatarra, kolpeak

Beldurra: Danborra

Alaitasuna: Triangelua

Tristura: Ahotsa

5. **Margolan musikala:** Haurrak mahaietan eseriko dira eta margoak eta folioak banatuko zaizkie. Jarraian bi musika ezberdin ipiniko zaie. Abesti bakoitza 2 aldiz ipiniko da eta haiek, musika entzuten duten bitartean imajinatzen dutena margotuko dute. Ipiniko diren bi abestiak 3. saioan entzundako bi izango dira, alaitasuna eta tristura adierazten duten bi abestiak, alegia. Hauek, kontrako bi emozioak dira eta hurrek bi muturreko emozioak sentitzeko balio izango dute. Behin marrazkia bukatu dutela, marraztutakoa eta sentitutakoa adierazteko aukera izango dute.

6. **Nola ibiltzen gara?:** Irakasleak haurrak taldeka ipiniko ditu. Talde bakoitzari emozio bat atxikituko zaio eta haiek emozio horrekin nola ibiltzen diren adieraziko dute gorputzaren mugimenduen bitartez adieraziz. Talde denak haien emozioa gorputzarekin adierazi dutenean, talde bakoitzari bere emozioaren musika ipiniko zaio, ea horrela hobeto ulertzen duten. Gero, emozioen birbanaketa egin daiteke eta jarduera berriro hasi.

Bukatzeko, bakoitzak momentuan sentitu duen emozioaren munstroa hartu eta bere argazkiaren ondoan jarriko du. Horrela, emozio bakoitza adierazi nahi duena eta emozio bakoitza dagokion kolorearekin lotzen ikasi dutela ikus daiteke.

1. SAIOA	
Izena: Koloretako munstroa	Adina: 2 urte
<u>Edukiak</u> <ul style="list-style-type: none"> • Materialaren erabilpen egokia barneratzen hastea. • Emozioekin erlazioaturiko hiztegia erabiltzen hastea. • Koloreak ezagutzea. • Norberaren eta besteen sentimenduak behatzen astea. 	<u>Helburuak</u> <ul style="list-style-type: none"> • Norberaren emozioak eta hauen ezaugarriak ezagutzen hastea, beste norbaitek dituenengandik bereiztea. • Oinarrizko kontzeptu ezberdinak ezberdintzen hasi. • Emozio bakoitza kolore batekin lotzea. • Materiala zaindu eta erabili ondoren jasotzea.
<u>Lantzen diren gaitasun orokorrak:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasten eta pentsatzen ikastea. - Komunikatzen ikastea. - Elkarrekin bizitzen ikastea. - Pertsona gisa garatzen ikastea. - Egiten eta ekiten ikastea. 	
<u>Taldeak:</u> Talde osoa	<u>Denbora:</u> 20 minutu
<u>Baliabideak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Koloretako munstroa liburua • Munstroen txontxongiloak 	<u>Espazioa:</u> Gela
<u>Deskribapena:</u> Klasean koloretako munstroaren ipuina kontatuko zaie 5 munstroen txontxongiloak aurkezten zaizkien bitartean. Jarraian, txontxongiloak gelako pareta batean ipiniko dira, haiek manipula dezaten (Eranskinak 1. Saioa. 37. orria). Aurrerago munstro horiek margotu beharko dituzte dagokien kolorearekin, hortaz, margotu aurretik, munstroaren emozioa eta kolorea ondo ezagutu behar dituzte.	

2. SAIOA	
Izena: Nola nago?	Adina: 2 urte
<u>Edukiak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Materialaren erabilpen egokia barneratzen hastea. • Emozioekin erlazonaturiko hiztegia erabiltzen hastea. • Norberaren eta besteen sentimenduak behatzen astea. 	<u>Helburuak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Norberaren emozioak eta hauen ezaugarriak ezagutzen hastea, beste norbaitek dituenengandik bereiztea. • Oinarrizko kontzeptu ezberdinak ezberdintzen hasi. • Materiala zaindu eta erabili ondoren jasotzea. • Psikomotrizitate fina lantzea.
<u>Lantzen diren gaitasun orokorrak:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasten eta pentsatzen ikastea. - Komunikatzen ikastea. - Elkarrekin bizitzen ikastea. - Pertsona gisa garatzen ikastea. - Egiten eta ekiten ikastea. 	
<u>Taldeak:</u> Talde osoa	<u>Denbora:</u> 15- 20 minutu
<u>Baliabideak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Nola nago? liburuxka • Munstroen irudiak • Gometsak 	<u>Espazioa:</u> Gela
<u>Deskribapena:</u> Hasteko, Nola nago? liburuxka erakutsiko zaie. Bertan, emozio ezberdinen irudiak aurki daitezke (pozik, triste, beldur, lasai eta haserre). Liburuxka hau, irakurketa txokoan utziko zaie haiek nahi dutenean ikus dezaten. Liburuxka ikusi eta emozioei buruz hitz egin ondoren, txontxogiloetaz baliatuz, bakoitzari 5 munstro banatuko zaizkie eta hauek, sentitzen diren bezala margotu beharko dituzte, hau da, pozik dagoena, horia, triste dagoena urdina..(Eranskinak 2. Saioa. 38. orria)	

3. SAIOA

Izena: Sentimenduekin jolasten

Adina: 2 urte

Edukiak:

- Emozioekin erlazonaturiko hiztegia erabiltzen hastea.
- Norberaren eta besteen sentimenduak behatzen astea.
- Musika ezberdinak sentitzea.

Helburuak:

- Norberaren emozioak eta hauen ezaugarriak ezagutzen hasi, beste norbaitek dituenengandik bereiztea.
- Oinarrizko kontzeptu ezberdinak ezberdintzen hasi.
- Ikaskideekin afektibitate harremanak sortu eta mantendu.
- Sentimendu bakoitzari musika bat atxikitzea.
- Musika ezberdinaren bitartez, emozio ezberdinak lortzea.

Lantzen diren gaitasun orokorrak:

- Ikasten eta pentsatzen ikastea.
- Komunikatzen ikastea.
- Elkarrekin bizitzen ikastea.
- Pertsona gisa garatzen ikastea.
- Egiten eta ekiten ikastea.

Taldeak: Talde osoa

Denbora: 15 minutu

Baliabideak:

- Ilustrazioak eta musikak

Espazioa: Gela

Deskribapena: Musika ezberdinak ipiniko dira eta honi lotuta, hainbat ilustrazio erakutsiko zaizkie. Musika bakoitzak emozio ezberdin batekin lortzea du helburu. Haiek musika entzun ondoren sentitu dutena adierazi ahalko dute hitz batekin. Irakasleak nola sentitu diren galdetuko die eta haiek pozik, triste, beldur, etab. esango dute. (Eranskinak 3. Saioa. 42. orria)

POZIK <https://www.youtube.com/watch?v=UASfXSQ015U>

TRISTE https://www.youtube.com/watch?v=qfEK_8Kfwl0

LASAI <https://www.youtube.com/watch?v=N8RUISaiqx0>

BELDUR <https://www.youtube.com/watch?v=TUWi9ytJhDc>

4. SAIOA	
Izena: Instrumentuak jotzen.	Adina: 2 urte
<p><u>Edukiak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Emozioekin erlazonaturiko hiztegia erabiltzen hastea. • Norberaren eta besteen sentimenduak behatzen astea. • Musika ezberdinak sentitzea. • Instrumentuak ikastea. 	<p><u>Helburuak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Norberaren emozioak eta hauen ezaugarriak ezagutzen hastea, beste norbaitek dituenengandik bereiztea. • Oinarrizko kontzeptu ezberdinak ezberdintzen hasi. • Ikaskideekin afektibitate harremanak sortu eta mantendu. • Sentimendu bakoitzari musika bat atxikitzea. • Instrumentu ezberdinen bitartez, emozio ezberdinak lortzea.
<p><u>Lantzen diren gaitasun orokorrak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasten eta pentsatzen ikastea. - Komunikatzen ikastea. - Elkarrekin bizitzen ikastea. - Pertsona gisa garatzen ikastea. - Egiten eta ekiten ikastea. 	
<u>Taldeak:</u> Talde osoa	<u>Denbora:</u> 10-15 minutu
<p><u>Baliabideak:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Kutxa txinatarrak • Danborrak • Triangeluak 	<u>Espazioa:</u> Musika gela

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none">• Ahotsa• Arroz botila | |
|---|--|

Deskribapena: Instrumentu ezberdinak joz emozio ezberdinak lortzea du helburu jarduera honek. Instrumentu bakoitza emozio batekin doa:

Lasaitasuna: Arroz botila

Haserrealdia: Kutxa txinatarra, kolpeak

Beldurra: Danborra

Alaitasuna: Triangelua

Tristura: Ahotsa

5. SAIOA	
Izena: Margolan musikala	Adina: 2 urte
<u>Edukiak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Emozioekin erlazonaturiko hiztegia erabiltzen hastea. • Norberaren eta besteen sentimenduak behatzen astea. • Musika ezberdinak sentitzea. • Psikomotrizitate fina lantzea. 	<u>Helburuak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Norberaren emozioak eta hauen ezaugarriak ezagutzen hastea, beste norbaitek dituenengandik bereiztea. • Oinarrizko kontzeptu ezberdinak ezberdintzen hasi. • Ikaskideekin afektibitate harremanak sortu eta mantendu. • Psikomotrizitate fina landu.
<u>Lantzen diren gaitasun orokorrak:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasten eta pentsatzen ikastea. - Komunikatzen ikastea. - Elkarrekin bizitzen ikastea. - Pertsona gisa garatzen ikastea. - Egiten eta ekiten ikastea. 	
<u>Taldeak:</u> Talde osoa	<u>Denbora:</u> 10 minutu
<u>Baliabideak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Folioak • Margoak eta errotulagailuak. • 2 abesti. 	<u>Espazioa:</u> Gelan
<p><u>Deskribapena:</u> Bi musika ezberdin ipiniko zaie. Abesti bakoitza 2 aldiz ipiniko da eta haiek, musika entzuten duten bitartean margotuko dute. Ipiniko diren bi abestiak 3. saioan entzundako bi izango dira. Alaitasuna eta tristura adierazten duten bi abestiak. Jarraian, nahi izan ezker, sentitutakoa eta marraztutakoa adierazteko aukera izango dute.</p> <p>ALAITASUNA: https://www.youtube.com/watch?v=UASfXSQ015U</p> <p>TRISTURA: https://www.youtube.com/watch?v=gfEK_8KFWl0</p>	

6. SAIOA	
Izena: Nola ibiltzen gara?	Adina: 2 urte
<u>Edukiak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Emozioekin erlazionaturiko hiztegia erabiltzen hastea. • Norberaren eta besteen sentimenduak behatzen astea. • Musika ezberdinak sentitzea. • Emozioekin sentitzen dena mugimenduen bidez adieraztea. 	<u>Helburuak:</u> <ul style="list-style-type: none"> • Norberaren emozioak eta hauen ezaugarriak ezagutzen hastea, beste norbaitek dituenengandik bereiztea. • Oinarrizko kontzeptu ezberdinak ezberdintzen hasi. • Ikaskideekin afektibitate harremanak sortu eta mantendu. • Mugimenduaren bitartez, emozio ezberdinak adieraztea.
<u>Lantzen diren gaitasun orokorrak:</u> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasten eta pentsatzen ikastea. - Komunikatzen ikastea. - Elkarrekin bizitzen ikastea. - Pertsona gisa garatzen ikastea. - Egiten eta ekiten ikastea. 	
<u>Taldeak:</u> Talde osoa	<u>Denbora:</u> 10 minutu
<u>Baliabideak:</u>	<u>Espazioa:</u> Gelan
<p><u>Deskribapena:</u> Talde bakoitzari emozio bat atxikituko zaio eta haiek emozio horrekin nola ibiltzen diren adieraziko dute gorputzaren mugimenduen bitartez adieraziz. Nola ibiltzen gara pozik gaudenean? Eta beldurra dugunean? Talde denak haien emozioa gorputzarekin adierazi dutenean, talde bakoitzari bere emozioaren musika ipiniko zaio (Eranskinak 3. Saioa. 42. orria). Gero, emozioen birbanaketa egin daiteke eta jarduera berriro hasi.</p> <p>Jarraian, bakoitzak momentuan sentitzen duten emozioaren munstroa hartu eta bere argazkiaren ondoan jarriko dute.</p>	

6. 4 Nire proposamenaren hausnarketak

1. SAIOA

Hasteko *Koloretako munstroaren* (2012) ipuina kontatu genien. Orain arte inoiz ez zutenez entzun arretaz entzun ziguten denak, bakoitza bere lekuan eseriak. Ipuina erakargarriagoa egiteko txontxongiloaz baliatu ginen. Ipuina bukatu orduko, kanta baten bidez haiek nola zeuden galdetu genien. Nahiz eta hasierako plangintzan ez egon, ideia ona iruditu zitzaigun, beraz, aurrera eraman genuen. Abestiaren bitartez, haiek nola sentitzen ziren adierazi zuten. Denak bat ezik pozik zeudela esan zuten, baina batek, triste zegoela esan zuen. Orduan, besarkada bat behar zuen galdetu nion eta baietz esan zuenez, eman nion. Jarraian, nola zegoen galdetu nion berriz ere, eta oraingoan, pozik zegoela esan zidan.

Honekin konturatu ginen batzuk alaitasuna eta tristura bereizten bazekitela eta tristuraren emozioa, lagunaren maitasunarekin eta laguntzarekin aldatu zezaketela.

2. SAIOA

Nola nago? (2018) liburuxka aurkeztu genien asanbladan eserita zeudela. Liburuxka hau sortu genuen haiek oinarrizko emozioak ikasteko. Hortaz, paretan liburuxkan ikus daitezkeen emozioak ipini genituen ere bai. Honetan, landu nahi genituen emozioak aurki zitezkeen. Liburuxka hau ipuin txokoan utzi genuen, horrela, nahi zutenean ikusteko eta sentitzen zutena adierazteko gai izateko.

Liburuxka bere txokoan utzi ondoren, aurreko saioan erabilitako txontxogiloak berreskuratu genituen. Jarraian, haiek nola sentitzen ziren galdetu genien eta gehienak munstro horia eta berdea bezala zeudela esan zidaten, hau da, pozik eta lasai. Bigarren saio hau egin aurretik, txontxogiloak gelan ipiniak egon ziren, beraz, haurrek askotan manipulatu eta haiek nola zeuden aipatu zuten. Horrela, munstroaren irudia lantzeko errazagoa izan zen. Batzuk, munstroaren kolorea esan zuten eta beste batzuk, besterik gabe, munstroa behatz puntarekin seinalatu zuten.

Hasiera batean, bigarren saio honetan haur bakoitza sentitzen zuenaren arabera munstro bat edo bestea margotzea zen gure ideia, baina, gelako erritmoa ikusita eta irakaslearekin hitz egin ondoren, hainbat aldaketa egitea erabaki genuen. Prozesua pausoz pauso egin genuen eta poliki- poliki nahi genuen helburua lortu genuen.

Horretarako, gutxika- gutxika joan behar izan genuen eta lehenengo, munstroen ahoetan gometsak jarri behar izan zituzten. Batzuei oraindik kostatu zitzaien

eskatutakoa egitea baino, nahiz eta ahoan ez jarri, munstroan jarri zituzten gometsak. Ahoko keinua oso garrantzitsua da emozio ezberdinak ikusteko eta ulertzeko, beraz, ahora nabarmendu nahi izan genuen, horretarako, ahoaren gainean gometsak ipiniz.

Hurrengo egun batean, txontxongiloak hartu genituen berriz ere, eta honetan, haurrek barneratuagoak zituzten emozio bakoitza kolore batekin. Ondorioz, munstroen marrazkiak eman genizkien eta batzuk, pozik zeuden munstroak, *Koloretako munstroa* ipuinean bezala, horiz margotu zituzten. Beste batzuk, munstro lasaia kolore berdez margotu zituzten eta gutxi batzuk, koloreetan oharitu gabe, munstroa kolore ezberdinez margotu zituzten.

3. SAIOA

Haurrentzat jarduera luzeegia egin ez zezan bi egunetan banatu genuen saio hau. Lehenengo egunean lasaitasunaren kanta bakarra ipini genien (Eranskinak 6. Saioa. 46. orria). Lehenengo abestia, abesti lasaia izan zen. Musika ipini genien eta jarraian, ideia bat bururatu zitzaidan. Musika gelditu nuen eta haurrak lurrian etzan nituen, buruak beste lagunen sabelean ipiniz, honen helburua, buruan masajitoak ematea baitzen. Denak etzan eta lasai zeudenean, musika lasaia jarri eta argia itzali genuen.



Erreakzio ezberdinak egon ziren. Gehienak asko lasaitu ziren eta batzuk logura sartzen ari zitzaiela esan ziguten. Hala ere, oraindik diagnostikatu gabe baina premia bereziak dituen haur batentzat jarduera ez zen erraza izan. Haur honek egunean zehar, denbora asko lurrian etzanda ematen du, baina, jarduera honetan zehar, lurrian etzanda egoteko momentuan, altxatzeko nahia eta gogoia erakutsi zuen. Ondorioz, irakaslea bere ondoan eseri zen eta haurra eserita mantentzea lortu zuen. Azkenean, lasaitasuna lortu zuen eta jarduera amaitu eta gero, lurrian etzanda jarraitzea erabaki zuen.

Bestalde, beste haur batek jarduera berri eta ezberdin honen aurrean izutu egin zen eta negarrez hasi zen. Hala ere, azkar lasaitu egin zen eta musikaz gozatu zuen.

Orokorrean, gehienak musika entzunda lasaitu egin zirela esango nuke, beraz, jarduera nahiko ondo atera zela uste dut.

Nahiz eta bost emozioei buruzko bost abesti ez jarri, lasaitasuna lortzeko abestiarekin emozio hori lortu genuen. Honekin, 5 minutu egon ginen eta batzuk jada altxatzen hasi ziren, ezin izan genuen pentsatutako abesti denak ipini.

Beste egun batean, faltatzen ziren musikak ipini genituen eta musika bakoitza irudi ezberdin batekin lotu genuen (Eranskinak 3. Saioa. 42) Hasteko musika alaia jarri genuen eta haurrak dantzatzen hasi ziren, pozik salto eta birak ematen.



Jarraian, musika tristea ipini genuen eta aurrekoan bezala dantzatzen aritu ziren, ez baitzuten bi abesti horien artean ezberdintasuna topatu eta hortaz, bi emozioak ez zituzten ezberdindu.

Arreta handia deitu zigun haur batek hirugarren abestia ipini genuenean. Abesti



hau, beldurra sortzen zuen abestia izan zen eta denbora guztian nire ondoan dantzatzen egotetik, etxe txokoan ezkutatzera joan zen. Beldurra sentitu zuen eta hortaz, hortik joatea erabaki zuen. Abestia kendu genuenean, berriz nire albora itzuli zen. Honekin gauza bat argi ikusi genuen. Nahiz eta emozioari izena jartzen ez jakin, emozio ezberdinak gorputza eta aurpegiaren bitartez adierazteko gai dira. Hortaz, gure lana da emozio horiei izena ematea.

4. SAIOA

Denbora ez genuenez, musika gelara instrumentu ezberdinak jotzera ez ginen joan, baina, jarduera hau modu ezberdin batean planteatu genuen. Egoerari egokitu behar izan ginen eta horretarako, instrumentu ezberdinak erabili beharrean, edateko jogurteko hainbat botila hartu genituen eta hauen barruan, gauza ezberdinak sartu genituen. 8 botila egin genituen, bitan intxaurrek sartu genituen, beste bitan arroza eta beste bitan txanpon txikiak. Horrela, botilak soinu ezberdinak zituzten eta haiek diskriminazioa erabiliz, soinu bereko bi botilak elkartu behar izan zituzten.



Botilak lurrean ipini genituen eta haiei ezer esan gabe, botilak hartu eta soinu ezberdinak entzuteko botilak mugitzen hasi ziren. Batzuk soinu bereko bi botilak elkartu zituzten, beste batzuk besterik gabe soinu ezberdinak entzuteko botila mugitzen aritu ziren.

5. SAIOA

Hurrengo jarduera egiteko, aurreko saio batean ipinitako musika alaia eta tristea ipini genien. Hasteko haur denak mahaitan eseri genituen eta behin eseriak eta lasai zeudela folioak eta margoak/errotulkiak/arkatzak eman nizkien. Jarraian, musika alaia ipini genuen eta haiek margotzen hasi ziren.

Musika berdina 3 aldiz ipini genien, baina, haiek ez zuten musika entzuten marrazkia egiten zuten bitartean. Txikiak direnez, askok oraindik ez dute eskumuturraren kontrola eta marrazkiak egiteko orduan beso osoaz baliatzen ziren inguru soinuei kasu egin gabe.

Musika alaia 3 aldiz entzun eta gero, musika tristea ipini genuen eta haiek, aurreko marrazkian bezala, marrazkiak eta batzuek borobilak margotu zituzten. Haur gutxi batzuk eskumuturraren kontrol handia zituztenez, haien marrazkiak kontrol handiagoz egin zituzten. Baina marrazkiak eta musika ez zuten inongo loturarik izan.

6. SAIOA

Jarduera hau patiora irten aurretik egin genuen. Horretarako, haurrak taldeka ipini genituen eta talde bakoitzari emozio bat eman genien. Talde bakoitzak bere emozioa adierazi behar zuela azaldu genien, eta horretarako, gelatik ibili zezaketela aipatu genien.

Pozik eta lasai egotea tokatu zitzairen taldeek primeran egin zuten. Lehenengoak saltoka eta dantzatzen egon ziren gelatik, bigarrenak, ordea, lurrean etzan eta eseri ziren "Yoga" egiten zeudela irudikatuz. Pozik eta lasai nahiko antzekoak izan daitezke, beraz, lasaitasunari Yogako mugimendu errazak sartu genizkion eta haurrak, horrekin erraz geratu ziren.

Beldurra eta haserrea irudikatu behar zuten taldeek ere nahiko erraz irudikatu zuten haien emozioa. Beldurra adierazteko, batzuk gelatik korrika egon ziren, beste batzuk ezkutatu egin ziren, beste batzuk aurpegiko keinua aldatu zuten, etab. Haserreari dagokionez, gehienak aurpegiko keinua ipini eta besoak gurutzatu zituzten. Hauek ere emozioa ulertu zutela ikusi genuen.

Azkeneko taldea, tristura irudikatu behar zuen taldea izan zen. Batzuk argi zuten emozio hori zer adierazten zuen eta besterik esan gabe, ahoko keinua beherantz jarri eta negarrak irudikatu zituzten. Beste batzuk, berriz, gelatik bueltak ematen egon ziren, batzuk barrez, beste batzuk lasai eta beste batzuk saltoka. Azkeneko emozio hau gehien ulertzea kostatu zitzairen emozioa izan zen.

Hau ikusita, aurreko saioan erabili genituen bost kanta ezberdinak ipini nituen. Talde bakoitzak argi zuen ze emozio zuten, hortaz, haien emozioa adierazten zuen musika ipintzen genuenean, eskua altxatu behar zuten. Honekin, haurrak emozio bakoitza garbiago ikustea lortu genuen.

Musika ezberdinak entzun ondoren, emozioak banatu genituen berriz ere, talde bakoitzari beste emozio bat emanez. Azkeneko honetan, musikaz baliatuz jarduera primeran atera zen, talde bakoitza gorputzaren bitartez tokatu zitzaion emozioa irudikatu zuen.

Bukatzeko, bakoitzak momentuan sentitutako emozioaren munstroa hartu behar zuen, baina, haiek lehenengo ikusi zuten munstroa hartu zuten. Azkeneko zati hau azaltzeko, ni lasai zegoen munstroa hartu nuen eta askok, munstro berdea (lasaia) hartu zuten, niri imitatuz. Hortaz, musika ipinita emozioak hobeto bereizten zituztela ikusi genuen baina, musika gabe, gehiago kostatzen zitzaizela ohartu ginen.

7. Ondorioak

Lan hau burutu ondoren, hainbat konklusio atera ditugu. Hasteko, esan beharra dugu musika eta emozioei buruzko liburu, artikulu eta autore asko aurki daitezkeela, hain zuzen ere, teoria asko dagoelako. Baina, aldi berean, bi gai hauek batera jorratzen dituen teoria eta informazio gutxi dago. Beraz, marko teorikoa borobiltzeko iturri ezberdinetatik informazioa jaso eta bateratu behar izan dugu.

Bigarrenik, esan, lan honen helburu orokorra bete dugula. Emozioak eta musika lantzeko sortutako proposamen didaktikoa 2 urteko gelan aurrera eramateko aukera izan dugu Bizarain Ikastolan. Hasieran nahiko buru haustea izan genuen jarduerak pentsatzeko orduan, izan ere, ez genekien 2 urteko hurrek gure proposamenaren helburuak betetzeko gai izango ziren. Beraz, hasieran teorikoki planteatuta genuen ideia praktikara eramateko orduan haien erritmo eta beharretara moldatu behar izan genuen. Honengatik emozioen adierazpenean eta pertzepzioan jarri genuen fokua, lehenengo urratsa sinplea izatea nahi baikenuen.

Behin proposamen didaktikoa bukatu dugula, 2 urteko hurrek emozioak modu zehatz batean ikastea gehiegi dela konturatu gara, oraindik goizegi baita haiek ondo ulertzeko. Baina, oinarrizko emozioaz ohartzeko gai dira, hauek bideratzeko, ordea, zailtasunak dituzte. Horregatik, haurrak haien emozioak bideratzen hasi behar dute eta hauek musikarekin landuta, hobeto ulertu dituzte. Oinarrizko emozio hauek ezagutzen hasteko jolas, musika eta ilustrazio bidez egitea oso aproposa dela ikusi dugu. Musika emozioak baino intuitiboagoa da, beraz, hurrek errazago ulertzen dituzte emozioak musikaren laguntzarekin.

Egia da, oinarrizko emozio horien artean badaudela emozio batzuk errazago ulertu dituztela besteak baino. Jarduerak egin ditugunean, hainbat ume tristuraren emozioa ulertzeko zailtasunak izan dituzte eta triste jarri beharrean saltoka eta dantzan jarri dira. Bestalde, hasieran, lasaitasunaren emozioa alaitasunaren emozioarekin nahasten zituzten, beraz, teknika ezberdinak sortu behar izan genituen eta lasaitasuna Yogarekin lotu genuen. Modu honetan, Yogako mugimendu sinpleak erakutsi genizkien eta lasaitasunaren emozioa lurrean etzanda egotearekin edo eserita arnasketa lasaia mantentzearekin lotu zuten.

Ildo beretik, esan beharra daukagu emozioei musika jartzean hurrek hobekuntzak izan zituztela emozioak identifikatzeko orduan. Haurrak abesti bat intonatzeke eta dantzatzeko gai dira jolas eta gorputz adierazpenari esker. Gainera,

irakasleak erritmo bat ematen duenean, hauek imitazioaren bidez erritmo hori eramateko gai direla ikusi dugu. Batzuk trebetasun handiago dute beste batzuk baino, baina, hori da benetan lortu nahi dena. Haur bakoitza bere erritmora joatea eta haien artean, laguntzazkoa izatea.

Instrumentuak jotzen ibili ziren momentuan, haurrak haien gorputza ezagutzen eta psikomotrizitatea lantzen ibili ziren, instrumentu musikalak ezagutzen eta haiekin esperimentatzen zuten bitartean. Jarduera honekin, haurrek haien artean influentzia handia zutela ikusi genuen, izan ere, haien artean mugimendu berak egiten zituzten. Oso polita iruditu zitzaigun haiek bakarrik nola ikertzen eta saiatzzen ziren ikustea, baita haien artean nola laguntzen ziren behatzea ere.

Hau dena ikusita, baieztatzen dugu bai musika bai emozioak lantzea garrantzi handia duela, baina, horretarako, irakaslearen formakuntzak arreta handiagoa hartu beharko zuen bai eskoletan baita unibertsitatean ere. Egia da, gaur egun, irakasle-eskolako ikasketak jasotzen dugunok, musika ikasgaia ematen dugula baina, 4 urteetan musikak presentzia handiagoa eduki beharko zuela uste dugu. Modu berean hezkuntza emozionalarekin, izan ere, emozioak musika baina presentzia txikiagoa baitu gure irakasle izatearen ibilbidean.

Beraz, aurreko guztia laburbilduz, lan hau egin eta praktikara eraman ondoren musika eta emozioak Haur Hezkuntzan garatzea oso garrantzitsua dela ohartu gara. Ni praktiketan egon naizen 3 hilabetetan, proposamen didaktiko hau aurrera eramaten aurrerapen handiak ikusi ditut, hortaz, nire lana ez da hemen bukatu. Haur Hezkuntzako gela batean lan egiteko aukera izatean, proposamen hau luzatu eta gehiago sakontzen ahaleginduko naiz, hain zuzen ere, oso kontent eta harro gelditu bainaiz lortutako helburu eta aurrerapenak ikusiz.

8. Hobekuntza proposamenak

Lan hau burutu eta asko hausnartu ondoren, musika haurren bizitzetan txikitatik sartzea beharrezkoa dela egiaztatzen dugu. Horretarako, erabakirik onena haurren eta musikaren artean lotura bat egotea beharrezkoa dela izan da, izan ere, frogatu dugu honek haurrengan onura ikaragarriak ekartzen dituela haien bete- beteko garapenean.

Nahiz eta denbora gutxi izan dugun, aurrerapen handiak ikusi ditugu, hortaz, denbora gehiago eduki izan bagenu, aurrerapenak oraindik sakonagoak izango lirateke. Instrumentuekin esperimentatzeko denbora ez genuen izan, horregatik, inprobisazioari eutsi genion eta klasea aurrera eramateko gaitasuna izan genuen, haien erritmora egokituz. Hala ere, haurrak instrumentuekin manipulatzeko aukera ez izatearen penaz gelditu gara. Hori dela eta, eskolako urteko programazioak egiteko orduan, musika garrantzia eta presentzia handiagoa izatea gustatuko litzaiguke.

Duela pare bat urte Erreterian, nire herrian, Landarbaso Abesbatzak haien pertsonala handitzeko nahian, haurrentzat abesbatza egitea erabaki zuen. Baina, hau ez da abesbatza normal bat bezala, honetan haurrak ipuin zein istorio berriak ezagutzeko eta abesten interpretatzeko aukera izaten dute. Abestutako abestiak pelikuletako eta ipuinetako abestiak dira, hortaz, haurrentzat ezagunak dira, eta hauen kulturak aberasteko, beste eskualde zein herrialdeetako pieza musikalak interpretatzeko aukera izaten dute ere bai.

Landarbaso abesbatzaren helburua proiektu honekin musika eta artearen munduan murgiltzea izan zen. Modu honetan, haurrak ondo pasatzeko eta disfrutatzeke aukera izaten dute haien lagunekin batera. Gainera, ahoskera ohitura onak ikasten dituzte modu dibertigarri batean, taldean lan egiten ikasten duten momentu berean.

Proiektu berri hau ezagutu ondoren, pentsatu genuen ea zergatik ez zen hau eskoletara eramaten. Gure ustez musika modu motibagarri eta nahigarri moduan emateko modu bikaina da, betiko metodologia alde batera utziz. Eskoletan, askotan, musika gainazal moduan ematen da, hau da, haurrentzat denbora pasa hutsa da, azken finean, ez baitute asko ikasten. Proiektu berri honekin, musikak Curriculumean garrantzia handiagoa hartuko luke eta berez, "garrantzitsuak" diren ikasgaien maila hartuko luke. Gainera, behar bereziak dituzten hurrekin ere proiektu hau oso eraginkorra da, hain zuzen ere, haien beharretara moldatzeko aukera ematen duelako.

Beraz, nire lan hau berriz egiteko aukera izango banu, Landarbaso Abesbatzak indartu zuen proiektu hau Haur Hezkuntzako gela batera eramaten saiatuko nintzateke. Horrela, haurrak musikaren munduan murgiltzeko modu egokia eta aproposa den baieztatuko genuke. Abestien, pelikulen eta ipuinen interpretazioarekin emozioak asko lantzen dira eta haien sentimenduak agerian gelditzen dira. Modu honetan ere, haien emozioak ezagutzeko aukera izango dute.

Horrela, ba, interpretazioak prest daudenean haurren familiei erakusteko aukera egongo zen. Haurren familiak nagusitasun handiagoa izan beharko lukete haurren garapenean, izan ere, hurrek maitasun handia sentitzen baitute haien gurasoengandik eta hauek, haien ikaskuntzan inplikatuak ikustea onurak ekarri ditzazke haiengan.

Bukatzeko esan, gure desioetako bat proiektu musikal hau eskoletan ikustea dela, horrela, hurrek musikarekin nola ikertzen eta disfrutatzen duten ikusteko aukera izango genuke. Ibilbide mantsoa eta luzea izan daiteke baina bukaerako emaitza bere fruitua eman dezake.

9. Bibliografía

- 237/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.
- Akoschky, J., Masmitjà, P. A., Gómez, M. D., & Hayes, A. G. (2008). *La música en la escuela infantil (0-6)* (Vol. 23). Grao.
- Bernal, J. (2000). Mesa redonda: La investigación como proyecto de futuro. Implicaciones de la música en el currículum de Educación Infantil, *Lista Electrónica Europea de Música en la Educación (LEEME)*, nº 5 (mayo), 1-16.
- Bernal, J. y Calvo, M.L. (2004): *Didáctica de la música. La voz y sus recursos. Repertorio de canciones y melodías para la escuela*. Málaga. Ediciones Aljibe.
- Bisquerra, R. (2011). *Educación emocional. Propuestas para educadores y familias*. Editorial Desclée De Brouwer, S.A.
- Bizarain Ikastolako Web orria. Honako web gune honetatik berreskuratuta 2019ko ekainaren 6an: <https://bizarain.eus/inicio>
- Camino, I. eta Murua, H. *Mugimendu pedagogikoak eta Hezkuntza Sistema*.UPV-EHU.
- Cuesta, O. (2018). *Nola nago? Ikasketa materiala*.
- Damasio, A. (2011) El origen de los sentimientos. *Executive Excellence*, nº 85
- Extremera, N. y Fernández, P. (2004). El papel de la inteligencia emocional en el alumnado: evidencias empíricas. *Revista Electrónica de Investigación Educativa*. Vol. 6, Núm.2, 2004
- Fernández, P. y Extremera, N. (2005). *La Inteligencia Emocional y la educación de las emociones desde el Modelo de Mayer y Salovey*. Universidad de Málaga.
- Gardner, H. (1993). *Inteligencias múltiples. La teoría en la práctica*. Nueva York. Basic Books, división de Harper Collins Publisher.
- Goleman, D. (1999). *La práctica de la inteligencia emocional*. Barcelona: Kairós.
- Llenas, A. (2012). *Koloretako munstroa*. Flamboyant.

- López Cassà, E. (2005). La educación emocional en la educación infantil. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*. vol.19 (3), pp. 153- 167
- Mayer, J.D. y Salovey, P. (1997). What is emotional intelligence? En P. Salovey y D. Sluyter (Eds.), *Emotional development and emotional intelligence: Implications for educators* (pp. 3-31). New York: Basic Books.
- Melián Suárez, Y. y Rodríguez del Valle, P. (2016). *La consideración de las emociones en educación infantil y cómo trabajarla*. (Trabajo de fin de grado). Universidad de La Laguna.
- Núñez Pereira, C. y Valcárcel, Rafael R. (2018). *Emocionario*. Palabras Aladas, S.L.
- Olmos Martínez, M. (2016). *Música y emociones. Propuesta de intervención en el aula de 4 años*. (Trabajo de fin de grado). Universidad Internacional de La Rioja.
- Pascual Mejía, P. (2006). *Didáctica de la música*. Pearson Educación, S.A.
- Pintado, E. (2014-2018). Diario de una maestra. Málaga. *El blog de Elena*. Webgune honetatik berreskuratuta: <http://www.auladeelena.com/>
- Sarget, M. A. (2000). Perspectiva histórica de la educación musical. *Revista de la facultad de Educación de Albacete* Nº15, 117- 132. Web gune honetatik berreskuratuta: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2292937>

10. Eranskinak

1. SAIOA



Eskutxoaren erritmoarekin abestia:

KAIXO DANEL, KAIXO DANEL


ZER MODUZ? ZER MODUZ?

(Haurraren erantzuna)

GU OSO POZIK GAUDE, GU OSO POZIK GAUDE

MUXU BAT. MUXU BAT.

2. SAIOA









3. SAIOA

Aurrez aurre ikus daitezkeen ilustrazioen bitartez, egoera desberdinen bizipenak sentitu daitezke musika baliabide gisa erabiliz.

POZTASUNA



Sophonic Media

Make it shine. Happy and positive.

<https://www.youtube.com/watch?v=UASfXSQ015U>

TRISTURA



BEETHOVEN

5. *Piano kontzertua. Op. 73. Il mugimendua.*

https://www.youtube.com/watch?v=qfEK_8KFwI0

BELDURRA



Scary Horror Music

BroSisOK

<https://www.youtube.com/watch?v=TUWi9ytJhDc>

HASERRALDIA



ANANDA SUKARLAN

Bach-en inguruko ametsa eta ihesaldia.

<https://www.youtube.com/watch?v=vGwdkZzzMJ4>

LASAITASUNA



EDWARD GRIEG

La mañana. *Peer Gynt*. Op. 23.

<https://www.youtube.com/watch?v=N8RUISaiqx0>